

**EUSKADIKO
PENTSIOAK
GARANTIZADO XXX**

**GIZARTE AURREIKUSPENEKO
PLAN
INDIBIDUALAREN**

araudia

Aurkibidea

Orrialdea

I. titulua. ATARIKOAK

1. artikulua. Definizioak	1
---------------------------------	---

II. titulua. HELBURUA, IZENA, ESPARRUA, IRAUPENA, MODALITATEA ETA ERREGIMENA

2. artikulua. Helburua	2
3. artikulua: Izena	2
4. artikulua. Esparru pertsonala. Bazkidearen alta eta baja. Eskubide ekonomikoak mugitzea	2
5. artikulua. Iraupena	3
6. artikulua. Modalitatea	4
7. artikulua. Araubide juridikoa	4

III. titulua. ONDAREAREN INBERTSIOA ETA FINANTZAKETA-SISTEMAK

8. artikulua. Inbertsio-politika eta administrazio-gastuak	4
9. artikulua. Finantzaketa-sistemak eta eskubide ekonomikoen zehaztapena	4

IV. titulua. OHIKO BAZKIDEEN EKARPENAK

10. artikulua. Bazkideen ekarpenak	6
11. artikulua. Ordainagiriaren ordainketa	6
12. artikulua. Ekarpenean itzultzea	6

V. titulua. PRESTAZIOAK, ZENBATEKOA ETA PRESTAZIOAK SORTZEA ERAGITEN DUTEN GORABEHERAK

13. artikulua. Definizioa eta izaera	7
14. artikulua. Estaltzen dituen kontingentziak	7
15. artikulua. Jasotzeko era eta zenbatekoa	8
16. artikulua. Bazkidearen defentsaria	8
17. artikulua. Araudia aldatzea	10
18. artikulua. Plana iraungitzeko arrazoiak eta esleitutako ondarearen norakoa	10

<i>I. eranskina. BERME-AGIRIA</i>	11
---	----

I. titulua. ATARIKOAK

1. artikulua. Definizioak

a) Plana

Euskadiko Pentsioak Garantizado **XXX**, Gizarte Aurreikuspeneko Plan Indibiduala da eta araudi honek arautzen du.

b) Planaren esparrua

Plan hau Euskadiko Pentsioak, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen baitan eratu da.

c) Bazkide ohiko edo osoak

Egungo Legeak ezarritakoari jarraiki eurentzat edo euren onuradunentzat prestazioren bat jaso dezaketen pertsona fisikoak dira. Gauzen gaineko arriskuaren kasuan, berriz, arrisku hori dagokien ondasunen gainean eskubide edo interes legitimoa dutenak dira. Ohiko bazkideen mota hauek daude:

Bazkide aktiboak: eurek zuzenean edo hirugarrenek euren izenean egindako ekarpen ekonomikoen ondorioz, eurentzat edo euren onuradunentzat prestazioren bat jasotzeko eskubidea duten pertsonak.

Bazkide pasiboak: bazkide aktibo izan ondoren, prestazioaren titular zuzen bihurtu direnak, kontingentzia gertatu ondoren babestutako subjektuak direlako.

Etendura egoeran dauden bazkideak: bazkide aktibo izan ondoren, gaur egun ekarpenik egiten ez dutenak, ez beraiek zuzenean, ez hirugarrenek beraien izenean.

d) Onuradunak

Onuradunak, heriotzagatiko prestazioak jasotzeko eskubidea duten pertsona fisikoak dira. Horretarako, ohiko bazkide osoak prestazioen onuradunak izenda ditzake heriotzaren kasurako; onuradun zehatzik adierazi ezean, hauek izango dira ordena honetan: bizirik dagoen ezkontidea, bizirik dauden seme-alabak eta bizirik dauden gurasoak, eta, horiek guztiak ezean, legezko oinordekoak.

Kontingentziaren ondoren, prestazioaren onuradunak aukera izango du bere eskubide guztiak edo batzuk kobratzeko, mugitzeko edo Entitatean uzteko.

Erretiroaren, baliaezintasun handiaren, erabateko ezintasun iraunkorraren, ezintasun iraunkor osoaren, iraupen luzeko langabeziaren eta gaixotasun larriaren ondoriozko prestazioen jasotzaileak ohiko bazkidea izan behar du beti.

Heriotzagatiko prestazioen onuradun izateko, ez da nahitaezkoa aurretik ohiko bazkidea izatea. Are gehiago, egokituz gero, Entitateko beste edozein Gizarte Aurreikuspeneko Planetako ohiko bazkidea ere izan daiteke plan honen onuraduna.

II. titulua. HELBURUA, IZENA, ESPARRUA, IRAUPENA, MODALITATEA ETA ERREGIMENA

2. artikulua. Helburua

Plan honek helburu bi ditu: batetik, ohiko bazkideei prestazio ekonomikoak ematea, erretiroa, baliaezintasun handia, erabateko ezintasun iraunkorra, ezintasun iraunkor osoa, iraupen luzeko langabezia eta gaixotasuna larria sortzen zaienean; eta, bestetik, ohiko bazkidearen onuradunei prestazio ekonomikoak ematea, partaidea hiltzen denean.

Dena den, planari atxikitzeke egunetik aurrera gertatutako prestazioak ordainduko dira soilik.

3. artikulua. Izena

Euskadiko Pentsioak **Garantizado XXX**, Gizarte Aurreikuspeneko Plan Indibiduala izenarekin eratu da plana.

4. artikulua. Esparru pertsonala. Ohiko bazkidearen alta eta baja. Eskubide ekonomikoak mugitzea eta erreskatatzea

Plan hau Caja Laboral Popular Coop. de Cr ditok sustatu du eta Euskadiko Pentsioak, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundean dago txertatuta.

Planari atxikitzea eskatu eta planean aurreikusita dauden ekarpenak egiteko betebeharra hartzen duen edozein pertsona fisiko izan daiteke bazkide oso edo ohiko. Gainera, Entitateko bazkide egin beharko da partaidea, lehendik ez bada behintzat, eta Entitatearen estatutuetan eta araudi honetan ezarritakoa bete beharko du. Beharrezkoa da pertsona fisikoak bere burua behartzeko ahalmena izatea.

Planari atxikitzeke buletina edo kontratua sinatu eta hasierako ekarpena ordaindutakoan lortzen da bazkide osoa edo ohikoa izatea.

Bazkide osoak edo ohikoak bazkide izateari utziko dio bi kasu hauetan: hiltzen denean edo bere eskubide ekonomiko guztiak beste BGAE bateko aurreikuspen-plan batera mugitzen dituzenean.

Halaber, planeko eskubide ekonomiko guztiak erreskatatzen baditu ere baja emango zaio. Erreskate partzialak ez dakar ohiko bazkide gisa baja hartzea.

Erabateko erreskatearen eta mugitzearen kasuetan, partaideari ez zaio ohiko bazkide moduan baja emango, Entitatearen beste gizarte-aurreikuspeneko plan batean bazkide ohikoa edo osokoa bada.

Bai erabateko erreskatea bai erreskate partziala egiteko, beharrezkoa izango da Euskal Herriko Borondatezko Gizarte Aurreikuspenen sisteman gutxienez hamar urteko antzintasuna izatea ohiko bazkide gisa. Kasu horietan, eskubide ekonomikoen balioa horiek ordainduko diren egunean indarrean dagoena izango da. Ordainketa gehienez bost egun baliodunen barruan egingo da, Entitatean ziurtagiri guztiak aurkezten direnetik zenbatzen hasita.

Eskubide ekonomiko guztiak edo batzuk Entitateko beste gizarte-aurreikuspeneko plan batera mugitzeko, ez da antzintasunik behar, eta ez du aldaketarik eragingo Entitatean bazkide gisa duen antzintasunean.

Eskubide ekonomiko guztiak edo batzuk Entitateko edo beste erakunde bateko beste gizarte-aurreikuspeneko plan batera mugitu edo intsuldatzea doan izango da, eta eskubide ekonomikoen balioa horiek ordainduko diren egunean indarrean dagoena izango da. Mugitzea gehienez bost egun baliodunen barruan egingo da, jatorriko BGAEan eskaera jasotzen denetik, edo indarreko arautegiak ezartzen duen epean bestela.

Iraupen luzeko langabeziaren eta gaixotasun larriaren prestazioen jasotzaile izateak ez dakar, nahitaez, ohiko bazkide gisa baja hartu behar izatea.

Ohiko bazkide izateari utziko zaio, halaber, estatutuei jarraiki Entitateko ohiko bazkide izateari utzi behar zaionean nahitaez.

Bermealdian ezin izango dira eskubide ekonomiko guztiak edo batzuk mugitu nahiz erreskatatu.

5. artikulua. Iraupena

Araudian ezarritako iraupena izango du planak. Zehazki, **2024ko urtarrilarne 31ra** arte iraungo du, 1. eranskinean jasotako berme-agirian ezarritakoari jarraiki.

Hasiera-data, berriz, Eusko Jaurlaritzak onartzen duenekoa izango da.

6. artikulua. Modalitatea

Bazkideen arteko lotura dela eta, Sistema Indibidualaren modalitatean sartzen da plana, eta, ekarpenen eta prestazioen erregimenari dagokionez, Ekarpen Zehatzeko Gizarte Aurreikuspeneko Planaren modalitatean.

7. artikulua. Araubide juridikoa

Planari honako hauek aginduko diote: Araudi honek, atxikipen-eskaera edo buletinak, horren hurrengo aldaketek (kasu bakoitzean dagokionak onartuta), Entitateko gobernu-organoen erabakiek eta, bereziki, Euskadiko Pentsioak, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen estatutuetan eta borondatezko gizarte-aurreikuspenen alorrean momentuan indarrean dagoen legerian ezarritakoek.

III. titulua. ONDAREAREN INBERTSIOA ETA FINANTZAKETA-SISTEMAK

8. artikulua. Inbertsio-politika eta administrazio-gastuak

Plan honi atxikitako fondoak inbertitzeko, horien izaerarako egokiak diren segurtasuna, likidezia eta errentagarritasuna hartuko dira irizpidetzat, betiere aktibo egokiei eta dibertsifikazioaren, dispersioaren eta kongruentziaren irizpideei buruz indarrean dagoen araudia kontuan hartuta.

Dena den, aurreko paragrafoko irizpide eta arauak errespetatuz eta, bereziki, BGAE-en zenbait jarduera arautzen dituen maiatzaren 29ko 97/2007 Dekretuaren 11. artikuluan inbertsioetarako ezartzen diren baldintzak kontuan hartuz, errenta finkoan inbertituko du plan honek batez ere. Ondorioz, araudi honen 1. eranskinean jaso den berme-agirian bermatutako zenbatekoa lortuko du bazkideak bermealdiaren amaieran.

Bermea erakunde bermatzaileari galdatzekoa izango da. Behartuta egongo da zuzenean ohiko bazkideari edo onuradunari ordaintzera, eta bermeak ez du zerikusirik izango Gizarte Aurreikuspeneko Planean egotearen ondoriozko eskubide eta betekizunekin.

Administrazio-gastuak % 0,60ekoak izango dira, eta planari atxikitako ondarearen arabera kalkulatu dira.

9. artikulua. Finantzaketa-sistemak eta eskubide ekonomikoen zehaztapena

- a) Plana kapitalizazio indibidualeko sistema finantzarioen bidez bakarrik gauzatzen da. Prestazioak horien arabera kalkulatu dira, ohiko bazkideek egindako ekarpenekiko baliokidetasuna bilatuta.

Ekarpen zehatzeko plana denez, gertatutako kontingentzia ordaindu behar denean zehaztuko dira prestazioak, planak garaturiko kapitalizazio-prozesuari jarraituz.

- b) Planari atxikitako ondarea hauxe izango da: ekarpen guztien kapitalizazio-fondoa, ken prestazioak, mugitzeak edo erreskateak (kalkuluak aipagai duen aldian egindakoak izan ezik), gehi inbertitutako baliabideek sortutako errendimenduak eta aktiboen plusbalioak edo minusbalioak (kalkulua egin den eguneko merkatu-prezioan baloratuta), ken ezarrita dauden administrazio-gastuak. Baloraziorako

merkatu-preziorik ez badago, balio efektiboa erabiliko da, zuhurtzia handieneko irizpideekin eta oro har onartutako balorazio-metodoak erabilia.

Kapitalizazio-fondoak bazkide atxikien eskubide ekonomikoen eta likidatzeko edo ordaintzeko dauden prestazioetarako horniduren balio osoa jasoko du.

- c) Bazkide atxiki bakoitzaren eskubide ekonomikoak zehazteko, hauek hartuko dira kontuan: bai planari egindako ekarpenen kapitalizazio finantzarioa, bai, egokituz gero, bazkide atxikiak gizarte-aurreikuspeneko beste plan batzuetatik planera mugitutako eskubide ekonomikoak. Horiei, gizarte-aurreikuspeneko beste plan batera mugitutako eskubide ekonomikoak kenduko zaizkie.

Eskubide horiek bazkide atxiki bakoitzak planaren posizio-kontuan duen zati alikuotaren ondorio dira, likidatzeko edo ordaintzeko dauden prestazioetarako hornidurak kenduta. Zati alikuota hori zehazteko, bazkide atxiki bakoitzaren mugimendu guztiei kontrabalioa zehaztuko zaie plan-unitateetan, eta bazkide atxikiaren kontuan abonatu dira.

Bazkide atxiki bakoitzarentzat partaide-kontuko saldo bat izango da plan-unitatetan adierazita.

- d) Plan-unitatearen balioa egunero zehaztuko da egun baliotun bakoitzerako, eta hurrengo baloraziora arte aldatu gabe egongo da. Ohiko bazkideak edo onuradunak 17:00etatik aurrera (penintsulako orduan) edo egun baliogabean emandako aginduak hurrengo egun baliotunean emandakoekin batera izapidetuko dira. Helburu horrekin, asteleheneetik ostiralera bitarteko egunak hartuko dira egun baliotuntzat, Espainia osoan jai direnak eta ostegun santua kenduta. Edonola ere, abenduaren 31 laneguntzat hartuko da, plan-unitatearen balioa kalkulatzeari begira.

Plan-unitatearen balioa kalkulatzeko, honako eragiketa hau egingo da: likidatu edo ordaintzeko dauden prestazioetarako hornikuntzak kendu ondoren Planean geratzen den posizio-kontua, zati egun horretan indarrean dauden plan-unitateen kopurua.

- e) Bazkide atxiki bakoitzaren eskubide ekonomikoak kalkulatzeko, berriz, plan-unitatearen azken balioa bider partaide-kontuan dauden plan-unitateen kopurua egingo da.
- f) Bazkide etenen eskubide ekonomikoak doitu egingo dira, planean indarrean dituzten urtealdietan egokitzen zaizkien emaitzak egotziz, eta ez da abonatuako plan-unitateen kopurua aldatuko.

IV. titulua. OHIKO BAZKIDEEN EKARPENAK

10. artikulua. Bazkideen ekarpenak

1. Plan hau finantzatzeko, kontratuan onarturiko ekarpenak egin beharko ditu ohiko bazkideak, eta ekarpen horiek planean sartuko dira berehala eta nahitaez.

Ekarpenak bermea hasi aurreko epealdian egin ahal izango dira soilik, hau da, plana Eusko Jaurlaritzak onartzen duenetik 2017ko ekainaren 30era bitartean. Ekarpeneren gutxieneko zenbatekoa 30 eurokoa izango da.

Bermealdian ezin izango zaizkio planari ekarpenik egin.

11. artikulua. Ordainagirien ordainketa

Ekarpenak banku-helbideratze bidez egingo dira (kontuan kargatuz edo transferentzia eginez).

12. artikulua. Ekarpenak itzultzea

Ekarpenak kobratzeko administrazio-prozesuko hutsegiteen ondorioz ohiko bazkideen banku-kontuetan ekarpenak oker zorduntzen direnean, Entitateak itzuli egingo ditu, bazkideok eskatu ondoren.

***V. titulua. PRESTAZIOAK, ZENBATEKOA ETA PRESTAZIOAK SORTZEA
ERAGITEN DUTEN GORABEHERAK***

13. artikulua. Definizioa eta izaera

BGAEak estalita duen kontingentziaren bat gertatu izanaren ondorioz planaren ohiko bazkideei edo onuradunei estaltzen zaien eskubide ekonomikoa da prestazioa.

Planaren izaera indibidual eta independente bera dute prestazioek, eta beste edozein prestaziorekin batera jaso daitezke.

Araudi honen 14. artikuluan aurreikusitako prestazioen balioa eskubide ekonomikoek ordaindu beharreko egunean dutena izango da.

14. artikulua. Estaltzen dituen kontingentziak

Hauek dira BGAEak planean estalitako prestazioak jasotzeko aukera ematen duten kontingentziak:

- a) Bazkide oso edo ohikoaren erretiroa. Erretiroaren kontingentzia onartuko da, ohiko bazkidea benetan erretiratzen denean, Gizarte Segurantzaren dagokion erregimenean edo antzekoetan, edo organo eskudunaren arabera. Eragin horietarako, erretiro aurreratua, malgua, partziala eta dagokionean Gizarte Segurantzak onartzen dituen bestelako formulak ere erretirotzat hartuko dira.

Aurreko atalean aipatu dugun erretiroa hartzea ezinezkoa denean, hirurogei urte bete ondoren hartuko da kontingentzia sortutzat.

Egoera hori egiaztatzeko, erretiroa dekretatu edo aitortzea dagokion administrazio-organoren beharrezko ziurtagiria aurkeztu beharko du ohiko bazkideak, edo, bestela, Gobernu Batzordearen iritziz egoera egoki frogatzen duen beste edozein bitarteko.

- b) Ohiko bazkidearen baliaezintasun handia, erabateko ezintasun iraunkorra eta ezintasun iraunkor osoa.

Kontingentzia horiek aurreko a) atalean adierazitako eran egiaztatuko dira.

- c) Ohiko bazkidearen heriotza, arrazoia edozein dela ere, Estatutu Sozialetan adierazitakoaren arabera onuradunek prestazioak jasotzeko eskubidea sortzen badu.

Prestazio horien onuradunak edo onuradunek heriotza-ziurtagiria eta onuradunak direla justifikatzen duen agiria aurkeztu behar dituzte.

- d) Iraupen luzeko langabezia

2. Aurreko d) eta e) ataletan jasotako kontingentziei dagozkien prestazioak modalitate hauetan jaso ahal izango dira:
 - a) Iraupen luzeko langabezia. Hileko errenta bidez jasoko da, eta ordaindutakoaren arabera prestazio publikoaren ordainketen parekoa izango da, salbu eta ohiko bazkideak ordainketa bakarria eskatzen badu, enplegua sustatzeko helburu zehatzarekin.
 - b) Gaixotasun larria. Kapital moduan jasoko da, eta ezin izango da ohiko bazkideari ordaindutako gastua edo sarrera-txikitzea baino handiagoa izan.
3. Ordainketok bost egun baliiodunen barruan egingo dira asko jota, Entitatean ziurtagiri guztiak aurkezten direnetik zenbatzen hasita. Dena den, kontingentzia ohiko bazkidearen heriotza bada, onuraduna zehaztutakoan abiatuko da epea.

Ohiko bazkideak edo onuradunak prestazioa jasotzeko eskubidea duela egiaztatzeko beharrezkoak iruditzen zaizkion agiriak eskatu ahal izango ditu Gobernu Batzordeak.

Bermea mugaeguneratu baino bi hilabete lehenago, muga-egun horri buruzko informazioa jasoko dute ohiko bazkideek, eskubide ekonomikoak eskuratu gura dituzten ala ez askatasunez erabaki dezaten. Eskubideok eskuratzea erabaki ezean, Euskadiko Pentsioak Moderatua Gizarte Aurreikuspeneko Planera edo Gobernu Batzordeak izendatutako bermerik gabeko beste gizarte-aurreikuspeneko plan batera intsuldatuko dira. Bazkideek horren guztiaren informazioa jasoko dute.

Kontuan abonatu edo transferentzia bidez egingo dira ordainketak.

16. artikulua. Bazkidearen defentsaria

Indarreko araudiaren arabera, osoko edo ohiko bazkide eta onuradunek, beren eskubideak defendatzekotan, edozein esku-hartzeren aurretik erreklamazioa aurkeztu beharko dute BGAEren Gobernu Batzordean, eta horrek erantzun egingo die.

Era berean, Entitateak Bazkidearen Defentsaria izendatu du, Batzar Nagusiaren bidez, bazkide babesleaz gain osoko edo ohiko bazkideen eta onuradunen eskubideak zain ditzan.

Aurreko paragrafoan adierazitakoa gorabehera, indarreko legedian aurreikusita dauden beste babes-sistema batzuk erabiltzeko aukera izango dute kontsumitzaileek eta erabiltzaileek, bereziki kontsumoko arautegian araututako bitartekaritza eta arbitrajea.

Bazkidearen Defentsaria BGAE-en alorrean indarrean dagoen legediak eta bere Prozedura Arauek arautuko dute. Horiei *Euskadiko Pentsioak BGAE Indibidualaren Jarduera Araudia eta Bazkidearen Defentsariaren Prozedura* deritze.

17. artikulua. Arautegia aldatzea

Arautegi honetan aldaketaren bat egitekotan, Euskadiko Pentsioak BGAEren Gobernu Batzordeak onetsi beharko du.

Euskadiko Pentsioak BGAE Indibiduala planaren Gobernu Batzordeak aldaketok onartzen dituenean, Gobernu Batzordearen Aktaren Ziurtagiria Eusko Jurlaritzaren administrazio-organora igorriko da, hantxe onartzen baitira araudien aldaketak eta araudi berria, Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen Erregistroan modu egokian inskribatzeko.

18. artikulua. Plana iraungitzeko arrazoiak eta esleitutako ondarearen norakoa

Plana berme-gutunean adierazitako muga-egunean iraungiko da, 2024ko urtarrilaren 31n alegia. Egun horretan, bazkideek libreki erabili ahal izango dituzte beren eskubide ekonomikoak, eta, bestela, mugitu egingo dira, 15. artikulua jasotakoaren arabera.

AGIRIA

Caja Laboral Popular, Coop. de Crédito, helbidea Arrasaten (Gipuzkoan) —Jose Maria Arizmendiarieta pasealekua, zk.g.— duenak, eta, haren izenean, Julio Gallastegui Zubizarreta zuzendari nagusiak honako konpromiso eta betebeharrak hartu dute, lehenak Euskadiko Pentsioak Garantizado XXX, Aurreikuspen Plan Indibiduala (aurrerantzean Plana) merkaturatu duen erakundea den aldetik eta bigarrenak erakundeko Kontseilu Errektoreak berme-agiri hau egiteko emandako ahalmen berezien arabera jardunez.

KONPROMISOA ETA BETEBEHARRA

Euskadiko Pentsioak Garantizado **XXX** planaren ohiko bazkideari edo onuradunari **2024ko urtarrilaren 31n** planean duen kontu-unitateari helburuko kontu-unitatearen balioa aplikatuz sortzen den zenbatekoa ordaintzekoa.

2024ko urtarrilaren 31ko (mugaeguneko) helburuko kontu-unitatearen balioa **2017ko ekainaren 30eko** kontu-unitatearen balioaren % **103,35**koa izango da, gutxienez.

Mugaegunean bermatutako kontu-unitatearen balioa formula honen arabera kalkulatu da:

$$VF = VI \times 1,0335$$

izanik,

VF = Kontu-unitatearen **2024ko urtarrilaren 31ko** amaierako balioa.

VI = Kontu-unitatearen **2017ko ekainaren 30eko** hasierako balioa.

Bermearen adibidea :

Hasierako kontu-unitatearen balioa (**30/06/2017**)6 €
Helburuko kontu-unitatearen balioa (**31/01/2024**) **6,20** €

UTBa Mugaegunean % **0,50**

➤ **KONPENTSAZIOA ORDAINTZEKO EPEA ETA MODUA**

Mugaeguneko kontu-unitatearen balioa ez bada helburuko baliora heltzen, berme hau erabili egingo da, eta Caja Laboral Popular, Coop. de Crédito ohiko bazkideak edo onuradunak erakunde gordailuzainean irekita duen kontu korrontean sartuko du, banku-transferentzia bidez, hemen azaldu den konpromisoa betetzeko beharrezkoa den zenbatekoa.

Helburu horretarako, ohiko bazkideak edo onuradunak ez dio bermatzaileari aurretiaz inolako ekintza edo jakinarazpenik zuzenduko, data horretan ordainketa hori egiteko.

Bermatzaileak (Caja Laboral Popular, Coop. de Crédito) hartutako berme-konpromisoa ohiko bazkideen edo onuradunen aldekoa izango da. Hortaz, bermeak ez du inolako loturarik Aurreikuspen Planekoa izatearen ondoriozko eskubide eta betebeharrekin, eta, beraz, bermatzaileari galdatu ahal izango zaio soilik. Horrek berariaz hartu du konpromiso hori, BGAEak bere egindako betebeharrak gorabehera.

Bermea mugaeguneratu aurretik ateratako kontu-unitateei egun horretan duten kontu-unitatearen balioa aplikatuko zaie. Merkatu-prezioak hartuko dira oinarri, baina ez du inolako bermerik izango.

➤ ERAGINA

Konpentsazio-berme honek eragina izateko, beharrezkoa izango da bazkideen eskubide kontsolidatuak kalkulatzeko egungo legeria eta BGAE-en nahiz Planaren ondarea osatzen duten aktiboen erregimen fiskala ez aldatzea. Hortaz, bermeak ez du eraginik izango, edo dagokion neurriko eragina izango du, honako kasu hauetan:

1. Eskubide kontsolidatuak kalkulatzeko egungo arauak aldatzen dituen lege-aldaketaren bat gertatzen bada, eta, ondorioz, Planaren balioa murriztu egiten bada, aldaketa horrek eragin gabeko balioaren aldea bakarrik konpentsatuko da.
2. BGAE-en erregimen fiskalean aldaketaren bat gertatzen bada, eta, ondorioz, eskubide kontsolidatuen balioa murriztu egiten bada, aldaketa horrek eragin gabeko balioaren aldea bakarrik konpentsatuko da.
3. Planeko ondarea osatzen duten aktiboen interes-tasetan, epean edo bestelako baldintzetan konstituzio- nahiz legegintza-aldaketaren bat gertatzen bada, eta, ondorioz, eskubide kontsolidatuen balioa murriztu egiten bada, aldaketa horrek eragin gabeko balioaren aldea bakarrik konpentsatuko da.

➤ ZERGA ERREGIMENA

Berme hau dela-eta Caja Laboral Popular, Coop. de Crédito ohiko bazkideari edo onuradunari zerbitu ordaindu behar badio, ordainketaren unean indarrean dagoen zerga-arautegia bete beharko da.

Arrasaten, 2017ko maiatzaren 2an.

CAJA LABORAL POPULAR, COOP. DE CRÉDITO
AHALORDEZ
JULIO GALLASTEGUI ZUBIZARRETA

